

## **DONOSTIA / Irakurtzeko ordua da**

**Donostiako liburu eta diskoko azokan, kultur jarduerak egongo dira, liburu eta diskoko eskauntzaz gain**

MIKEL IZARRA. DONOSTIA

Liburuen eta diskoen aukera zabala egongo da Donostiako liburu eta diskoko azokan, gaurtik uztailaren 14ra arte. Gipuzkoa plaza kultur topagune bilakatuko da egun horietan. Askotariko disco eta liburuak jarriko dituzte salgai, klasikoetatik berrietairaino. Asier Muniategi Euskadiko liburu azoken koordinatzailearen hitzetan, «euskal sortzaileen lana ezagutarazteaz gain, irakurzaletasuna bultzatzea da helburua; erosi edo mailegutan hartuta berdin du, irakurri egin behar da». Denbora falta izaten da gutxi irakurtzearen aitzakia nagusia, baina Arantza Urkia Udal Liburutegi Sarearen zuzendariak azaldu duenez, «oporrekin denbora ematen digute gehiago irakurtzeko, eta azoka aukera ona izan daiteke liburuak aukeratzeko».

### **Baita kultur topagunea ere**

Azokak plaza kultur topagune bilakatzeko nahia du, eta, horretarako, hainbat berrikuntza egin dituzte. Euskal emakume idazleei buruzko erakusketa egongo da azokan, eta Bizenta Mogelen lehen idatzietatik hasita gaur egunera arteko ibilbidea aztertuko du. Liburu aurkezpen, solasaldi eta idazleekin topaketak ere antolatu dira. Gehienak Liburutegi Nagusiko ekitaldi aretoan izango dira, hala nola uztailaren 3an egingo den nobela beltzari buruzko topaketa (Jon Arretxe eta J.J. Abasolorekin) eta 10ean Toti Martinez de Lezearen hitzaldia.

Aurten, produktu guztiekin %10eko beherapena dute. Azoka 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik goizez, eta 17:00etatik 21:00etara arratsaldez.